

2018-19 Urteko/ikasturteko programazio didaktikoa

ikastetxea:	URIBEKOSTA BHI	kodea:	015143
etapa:	DBHO	zikloa/maila:	1.maila
arloa/irakasgaia:	INDUSTRIA TEKNOLOGIA I		
osatutako arloak/irakasgaiak	TEKNOLOGIAK		
diziplina barruko oinarriko kompetentzia elkartuak	HKG - Hizkuntza eta komunikaziorako gaitasuna MG - Matematikarako gaitasuna AG - Arte-kulturarako gaitasuna GHG - Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna ZG - Zientziarako gaitasuna TG - Teknologiarako gaitasuna		
irakasleak:	ANA URIARTE	ikasturtea:	2018-19

Zeharkako gaitasunak:

- PIG-Pentsatzen eta ikasten ikasteko gaitasuna
- HHG-Hitzez, hitzik gabe eta era digitalean komunikatzeko gaitasuna
- EG- Elkarbizitzarako gaitasuna
- NAG-Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna
- IIG- Izaten ikasteko gaitasuna

helburuak	ebaluazio-irizpideak
1. Ekoizkin teknologikoak analizatzea, haien eginkizunaz eta funtzionamenduaz jabetzeko. Autonomiaz, segurtasunez baita modu sistematikoan egin ere. (TG, HKG, PIG, HHG, NAG, GHG)	1.1. Objektuen eta makinaren erabilera teknikoa deskribatzea. 1.2. Ekoizkin teknologiko baten materialak, formak eta diseinua justifikatzea. 1.3. Ekoizkin baten egitura, mekanismo, zirkuitu eta gainontzeko atalak bereiztea eta identifikatzea. 1.4. Ekoizkin teknologiko baten funtzionamendua deskribatzea.
2. Arazo tekniko praktikoak ebazterakoan irtenbide ezberdinak aztertzea eta baloratzea. (TG, ZG, HKG, PIG, HHG, NAG, GHG)	2.1. Fabrikazio-teknikak ezagutzea. 2.2. Teknikak inguru-giroan duten eragina ezagutzea. 2.3. Prozesu teknologikoen erabilerak gizakiarengan duten eragina ondorioztatzea. 2.4. Ekoizkinen bizitza amaitu ondoren haiek berrerrabiltzeko moduak iradokitzea.

<p>3. Askotariko dokumentu teknikoak, planoak, eskemak edota zirkuituak zuzen interpretatzea. (TG, ZG, MG, HKG, PIG, HHG, NAG)</p> <p>4. Prozesu eta sistema teknologikoak azaltzea era zehatz eta ulergarrian. (TG, ZG, HKG, PIG, HHG, EG, NAG, GHG)</p> <p>5. Proposamenak ahoz zein idatziz botatzeko gaitasuna izatea (baliabide digitalak tarteko). (TG, HKG, PIG, HHG, EG, NAG, GHG)</p> <p>6. Lan-taldean parte-hartze aktiboa izatea, talde-laneko fase guztietan. Oro har, taldean lan egiten ikastea. (HKG, PIG, HHG, EG, NAG, IIG, GHG)</p>	<p>3.1. Sistema mekanikoen, elektrikoen, elektronikoen eta olio-pneumatikoen funtzionamendua interpretatzea.</p> <p>3.2. Informazio grafikoa(plano, eskema, zirkuitu) interpretatzea.</p> <p>3.3. Magnitudeen unitateak zuzen bihurtzea.</p> <p>4.1 . Ekoizkin baten grafikoak, planoak eta zirkuituak marraztea ikur normalizatuak erabiliz.</p> <p>4.2. Lexiko, sinbologia eta grafiko egokiak erabiltzea prozesuak, teknikak eta ekoizkinak deskribatzeko.</p> <p>4.3. Informazioa sintetizatzea, era ulergarri eta laburrean adierazteko.</p> <p>5.1.Ekoizkin batek izan dezakeen hobekuntzak baloratzea</p> <p>5.3. Baliabide digitalak erabiliz ekoizkin teknologikoak aurkeztea klasearen aurrean.</p> <p>6.1. Lan-taldean norberaren ideiak aurkezten jakitea, besteenak entzutea eta taldekideekin arrazoituz irtenbide posibleak baloratzen ikastea.</p> <p>6.2. Lan-taldean harremanak zaintzen jakitea, besteekiko errespetua eta integrazioa indartzen jakitea.</p> <p>6.3. Segurtasun arauak onartzea eta betetzea.</p>
--	---

EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

1. Problema egoera:

Testuingurua: Gaur egungo industria eta teknologian I+G+Bk(ikerketagarako+garapena+berrikuntza "i+d+i") garrantzi handia dauka. Prozesu teknologikoaren oinarria da eta gaur egunean eta ekintzaitzaren abiapuntua.

Problema: Edozein produktu teknologikoren azterketa tekniko osoa egitea

Xedea: Produktu bat kontzeptutik kontsumitzaileen eskuetan dagoen arte dagoen prozesua ulertzea eta barneratzea (beharren azterketa, materialen aukeraketa, fabrikazio prozesuak,...) eta I+G+Bren filosofian murgiltzea.

Ataza: ikasle bakoitzak produktu bat aukeratuz bere azterketa sakona egingo du (azterketa morfologiko, tekniko, teknologiko, funtzionala, garapen historikoa, ekonomikoa...) eta behin hori eginda, produktu horretarako hobekuntza bat proposatu eta disinatuko du.

Edukiak:

1go.ebaluazioa:

Merkatua. Produktuen diseinu eta merkaturatzea

- Merkatuaren kontzeptua
- Eskaintza eta eskariaren legeak
- Produktuen diseinua
- Kalitate kontrola
- Banaketa kanalak
- **Problema-egoera**

Materialak

- Materialen ezaugarriak
- Materialen saiakuntzak
- Tratamendu termikoak

2.ebaluazioa:

Materialak

- Tratamendu termikoak
- Aleazioak

Fabrikazio prozedurak

- Moldekatzea
- Deformazioa
- Txirbil-harroketak
- Piezen juntura

3.ebaluazioa:

Automatismoak

- Zirkuitu pneumatikoak

Kontrol sistemak

- Zirkuitu logiko bidezko kontrola
- Elektronika digitala
- Kontrol programatua

Automatismoak

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

- Teoria saioak:

Saio gehienak informatika gelan emango dira, ikasle zein irakasleak euskarri digitalak erabiliko baitituzte lan egiteko.

Ez da testulibururik erabiliko. Azalpenak apunteetan oinarrituta egongo dira eta ikasleek behar izango duten material osagarria talde honentzako sortu den Classroomean eskegiko dira. Horrela ikasleak birpasarako eta gaiak sakontzeko erabili ahal izango ditu behar izatekotan, bakoitzaren lan erritmoa errespetatuz.

Ikus-entzunezko baliabideak.

- Saio praktikoak:

Simulatzeko programak: *Fluidism, Crocodrile clips*. Informatika gelan

Automatismoak eta kontrol sistemak lantzean robotika praktika batzuk burutuko dira teknologia gelan.

Ikasturte honetarako sortuko diren atazak Classroomean egongo dira beti ikusgai eta epe barruan entregatu beharko dira.

Kurtsoan zehar ikasleek azterketa teknologiko bat burutuko dute. Azterketa hau gauzatzeko ikerketa eta edukien sakontze lanak egin behar izango dituzte taldeka (eduki multzoetan aurreratzen den heinean). Ikerketa lan hauen emaitza klasean azalduko dute, taldean partekatuz, eta talde/bikote bakoitzak eginiko lanetik talde guztiek atera ahal izango dituzte haien azterketa teknologikoa aberasteko materiala.

Haien lanak aurkezteko erabili behar izango dituzte mindmap-ak, infografiak, denbora lerroak eta beste zenbait baliabide digital. Zehaztuko zaie erabili beharreko formatoa eta haiek aukeratu ahal izango dute sarean dauden doako baliabide digitalen artean erabiliko dutena (timetoast, goconqr...)

Jarduera honen helburua talde lana bultzatzea da eta aldi berean komunikazio gaitasuna eta ikasten ikasteko gaitasuna indartzea da; horretarako partaidetza kritikoa bultzatuz eta landutako edukiek errealitatearekin, eguneroko bizitzarekin eta alderdi praktikoarekin daukaten erlazioa jabetuz.

<p>EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioak, kontratu didaktikoa...]</p>	<p>KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]</p>
<p>Ebaluazio bakoitzean gutxienezko idatzizko froga bat egongo da. Taldeko lanak egingo dira eta lan hauek klasearen aurrean aurkeztuko dira. Ikasleek beraiek baloratuko dituzte talde lanak eta egingo dituzte hobetzeko proposamenak. Ikasleen partaidetza kritikoa balorazioa egingo da.</p>	<p>Ebaluazioaren nota kalkulatzeko hurrengo ehunekoak izango dira (ebaluazio bakoitzean landutakoaren arabera egokitu ahal izango delarik):</p> <ul style="list-style-type: none"> - Idatzizko frogak.....%45 - Txostenak, lanak..... %45 - Jarrera eta partaidetza%10 <p>Notaren batz-bestekoa kalkulatzeko gutxieneko nota 3.5 izan behar da atal guztietan. Lanak epean aurkeztea ezinbestekoa da.</p>

EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupeazio-sistema...].

Ebaluazioa bakoitzaren bukaeran ikasleek ebaluazioaren balorazioa egingo dute: irakaslearen lana, emandako edukiak, erabilitako metodologia, hobetzeko proposamenak.... Ikasleen balorazio hau ezinbestekoa da hurrengo ebaluazioaren martxa egokitzeko.

Ebaluazioen berreskurapena

Gainditu gabeko edukien ebaluazio bakoitzeko berreskurapen bat egingo da.

Lanegatik gaindituko ez balu ikasleren batek ebaluazioa gainditzeko irakasleak adieraziko dion epean entregatu beharko ditu lanak.

Jarrera modu jarraian ebaluatzen da.

Ikasgaia gainditzea

Ebaluazioa bat gainditu gabe duen ikasleari hiru ebaluazioen batz bestekoa kalkulatu zaio eta 5 balitz, kurtsoa gaindituko du.

Bi ebaluazio edo gehiagorekin ikasleak ohiko deialdian egin behar izango du eduki guztien azterketa, hori izan bada ez gainditzeko arrazoia, edota lanak egunean jarri behar izango ditu.

Ohiko deialdian ikasleak kurtsoan zehar izan duen bilakaera kontuan hartuko da. Ohiko deialdian gainditzen ez duen ikaslea ez-ohiko deialdira aurkeztuko aukera izango du.

Kurtsoan zehar ikasleren batek ikasgaiaren eskola orduen %20ra edo gehiagora faltako balitz, ikasgaiaren eskuratzeko maila baloratzeko nahikoa datu ez izateagatik, ikaslea ez-ohiko deialdia egin beharko du ikasgaia gainditzeko.

Ez-ohiko deialdian edukien azterketa baino ez da egingo eta besterik ezin izango da baloratu.

OHARRAK

Bestalde, ikastetxeko proiektuekin bat eginez, mintegiko irakasleok eskola orduetan eta egokia ikusten duen uneetan, honako ekimenen alde joko dugula adierazi nahi dugu:

- **Normalizazioa:** Euskararen erabilera bultzatzeko ekimenak eta jarduerak landuko ditugu, euskararen erabilera sustatzen, zaintzen, indartzen eta erabiltzen.
- **Irakurketa Plana:** Arloko testu espezifikoko ulertzeko jarduerak landuko dira, ikaskuntza-jardunaren oinarritzko edukia izan dadin. HTB: Gure hobekuntza planean eta Hizkuntza proiektuan adierazten den bezala, irakurmena lantzeko berenberegiko atazak egingo dira. Halaber, idatzizko testuak zuzentzeko mintegi guztien artean adostutako **txantiloia** erabiliko da.
- **Hezkidetzaren (Aniztasuna):** Sexuen arteko eskubide berdintasuna, edozein eratako bereizkeriaren aurreko gaitzespena eta kultura guztien begirunea modu eraginkorrean gauzatu. Guztien partaidetza positiboa sustatu.
- **Bizikasi:** "Arloko ekintzetan, hezkuntza komunitateko kide guztien arteko harreman positiboak eta elkar bizitza osasungarria eraikitzen lagunduko da."
- **Agenda 21:** Kontsumoaren arduratsua bultzatu eta ikastetxe ingurunearen alde lan egiteko konpromesua baloratuko da.
- **IKT:** Gure ikasleek bere garapenerako behar dituzten gaitasun digitalak eskuratzeko informazio bilatu, lortu, prozesatu eta komunikatu beharko dute (informazio hori jakintza bilakatzen).